

GOI MAILAKO HEZKUNTZAKO OZTOPOEI BURUZKO POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas



CREUPen Batzorde Exekutibo Zabalduek proposatu eta idatzi du posizionamendu honen zirriborroa, eta Batzar Orokorrak onetsi 2019ko apirilaren 28an, Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatean egindako 66. Batzar Orokor Arruntean.

AURKIBIDEA

| | |
|---|----------|
| 1. Sarrera | 2 |
| 1.1. Dimentsio soziala EUEren ministerio adierazpenen esparruan. | 2 |
| 1.2. Oztopen definizioa goi mailako hezkuntzaren dimentsio sozialean | 3 |
| 2. Oztopo sozioekonomikoak | 3 |
| 2.1. Prezio publikoak | 4 |
| 2.2. Ikasketen eta unibertsitate-bizitzaren ondoriozko gastuak | 5 |
| 2.3. Ikasteko bekak eta laguntzak | 5 |
| 3. Oztopo akademikoak eta iraupenari buruzkoak | 7 |
| 3.1. Errendimendua eta iraupena | 7 |
| 3.2. Bizitza pertsonalaren eta akademikoaren arteko kontziliazioa | 8 |
| 3.3. Mugikortsunean eta jardueren bidez egindako kredituen aitortpena | 8 |
| 4. Ondorioak | 9 |



1. Sarrera

Goi mailako hezkuntzak hasiera-hasieratik izan du zeregin garrantzitsua garapen sozialean, eta unibertsitateak pentsamendua, kultura, aurrerapen teknologikoa, berrikuntza eta ikerketa garatzeko zentroak izan dira; laburbilduz, aurrerabide eta garapen sozialerako zentroak. Dimentsio sozialak goi mailako hezkuntzaren banakako finantzaketara bakarrik mugatzen ez diren kontzeptu eta esparru batzuk biltzen ditu.

Ezin dugu unibertsitateko hezkuntza erakunde independente gisa ikusi, gure bizitzaren hasieratik garatzen baita. Beraz, ezinbestekoa da unibertsitate-hezkuntzaren aurreko etapetan zenbait balio sustatzea, hala nola berdintasuna eta inklusioa; izan ere, etapa horietan bazterketa egitea onartzen bada, ez dute ezertarako balioko unibertsitateko ikasketetan oztopoak gainditzeko diseinatzen diren mekanismoek.

Printzipio horren pean eratu zen Europako Unibertsitate Eremua (EUE), ikaslearen dimentsio sozial bat bermatzeko, prezio publikoek eta ikasketei lotutako beste kostu batzuek sortzen dituzten oztopo ekonomikoak eta kolektiboari eragiten dioten eta unibertsitateko bizitza osoan prestakuntza behar bezala garatzea galarazten duten oztopo akademikoak kentzetik harago joanen dena.

1.1. Dimentsio soziala EUEren ministerio adierazpenen esparruan.

1999an, Europako Unibertsitate Eremu baten eraikuntzarako oinarriak ezarri zituen Boloniako Adierazpenak (EUE). Dimentsio soziala Boloniako prozesuaren zati integrala izan da Pragako Komunikatuan agertu zenetik (2001), European Students' Union-ek proposatuta (ESU).

Bergeneko Komunikatuarekin (2005), dimentsio soziala behin betiko barneratu zen EUEren garapenerako eta arrakastarako funtsezko alderdi gisa. Goi mailako hezkuntzaren dimentsio sozialari dagokionez, EUEren sorreran parte hartzen duten



herrialdeen artean desberdintasunak zeudenez, herrialde bakoitzak bere estrategia garatzea gomendatu zen. Ondoren, Lovainako Komunikatuan (2009), ministroek erabaki zuten parte hartzen duten herrialde guztiek “helburu kuantifikagarriak ezarriko dituztela parte-hartzea areagotzeko, goi mailako hezkuntzan oro har eta gutxi ordezkatutako taldeena bereziki, eta helburu horiek heldu den hamarkadaren amaieran lortu beharko liratekeela”. Bukaresteko Komunikatuarekiko (2012) konpromisoa berretsi zuten horrela. Hala ere, 2018an, Europako 43 gobernutatik 38k ez dute oraindik lehentasuntzat hartzen unibertsitateetako dimentsio soziala.

Espanian, dimentsio sozialak ez du merezi duen arreta jaso, eta, horren ondorioz, unibertsitate-sistema bidegabea sortu da hari dagokionez. Egia da aurrerapen batzuk hauteman ditzakegula, baina analisiak argi erakusten du goi mailako hezkuntzarako aukera-berdintasuna bermatzeko helburua oso urrun dagoela errealitate izatetik.

1.2. Oztopoen definizioa goi mailako hezkuntzaren dimentsio sozialean

Goi mailako hezkuntzaren dimentsio sozialean dauden oztopoez ari garenean, goi mailako hezkuntzan kolektibo guztiek parte hartzea galarazten duten elementu sozial, ekonomiko eta akademikoez eta dibertsitateari buruzko ezarriak ari gara. Horrela, ezinezkoa da goi mailako hezkuntzak aukera-berdintasuna bermatzeko eragile erabakigarri gisa duen helburua betetzea. Oztopo horiek honela sailka ditzakegu: oztopo sozioekonomikoak, batetik, eta oztopo akademikoak eta iraupenari buruzkoak, bestetik.

2. Oztopo sozioekonomikoak

Oztopo ekonomikoak honako hauek dira: prezio publikoek eta ikasketen ondoriozko gastuek edo horien gabeziak osatzen dituzten neurri sozioekonomikoak. Neurri horiek beka- eta laguntza-sistemak dira, eta horiek baldintzatzen dute herritarrek goi mailako hezkuntzan parte hartzea, eta, beraz, mugatu egiten dute unibertsitateak “aukera-berdintasuna bermatzeko eragile erabakigarria” izateko duen eginkizuna.



Goi mailako hezkuntzaren bidez jakintzak bereganatzen dituzten ikasleak baldintza sozial eta ekonomikoei lotutako giroan bizi dira, eta beren familien jatorri sozialak markatzen ditu. Ingurune horrek zenbait oztopo sortzen dizkie gizarte-maila baxuenetako gizabanakoei, erosteko ahalmen txikiagoa dutenei, langabezia daudenei edo unibertsitateko errealitatek urrun dauden landa-eremuetan etxebizitza dutenei, eta nahitaezkoa da oztopo horiek ezabatzea. Hori dela eta, ikasle horiek zailtasunak izaten dituzte unibertsitateko goi mailako hezkuntzan parte hartzeak dakartzan gastuak ordaintzeko.

2.1. Prezio publikoak

Unibertsitateko zerbitzuak ematearekin lotutako prezio publikoak dira goi mailako hezkuntzaren oztopo ekonomiko nagusietako bat. Bidezko sistema baten eraketan sinesten dugu, non, Europako beste herrialde batzuetan bezala, unibertsitateko prestakuntzak ez duen inolako kostu ekonomikorik izanen. Goi mailako hezkuntzak ez du izan behar ordaindu ahal dutenen eskura dagoen pribilegioa, ez eta salerosten ahal den ondasuna ere.

Gure ustez, irakasgaien bigarren matrikulak eta ondorengoak errentaren arabera izan behar dira, eta errenta txikiagoak dituzten familietako ikasleei murrizketa proportzionala eman behar zaie. Administrazio eskudunak ordainketa zatikatua egiteko aukera eskaini behar du beti, ikasleak irakaskuntzaldian dituen baldintzetara ahalik eta gehien egokituta. Era berean, kontuan hartu behar da irakasgaiak ez gainditzea ikaslearen ustekabeko egoerek edo kudeaketaren, irakaskuntzaren eta/edo ebaluazioaren akatsek eragin dezaketela.

Uste dugu goi mailako hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetarako, masterrerako eta doktoretzarako sarbidea benetakoa izan behar dela guztiontzat, eta sarbidea bermatu behar dela egoera sozioekonomikoa edozein dela ere.



Gainera, tituluak ematearen, aitorpenak egitearen eta bestelako administrazio-zerbitzuen ondoriozko kostuak doakoak izan behar direla uste dugu, matrikularen kudeaketa-kostuetan sartuta baitaude.

2.2. Ikasketen eta unibertsitate-bizitzaren ondoriozko gastuak

Ikasleek, unibertsitateko prezio publikoek gain, beste gastu batzuk ere hartu behar dituzte beren gain, hala nola etxebizitzarekin zerikusia dutenak (goi mailako hezkuntzan parte hartzen duen bitartean beren etxetik kanpo bizitzera joan behar badute), ikasleek ikasketa presentzialak egitera joateko garraio-gastuak, unibertsitateko ikastegietako mantenu gastuak eta, ikasteko prozesuan materialak erabiltzearen ondoriozko beste batzuk. Garrantzitsua da nabarmentzea gastu gehigarri horiek badirela eta familientzat karga handia direla.

Gure ustez, gastu horietako asko beken bitartez edo bidezko laguntza-sistemen bidez ordaindu behar dira, ikasleen jatorri geografikoaren, sozialaren eta ekonomikoaren arabera, unibertsitatean ikasteak familiak zorpetzea ekar ez dezan.

Gainera, aipatu gastu guztiei aurre egin ahal izateko, askotan, ikasleak lan-merkatuan sartu behar dira ikasten ari diren bitartean, eta zaila izaten da hori ikasketekin bateratzea.

2.3. Ikasteko beka eta laguntzak

Ikasteko beken eta laguntzen sistemak hezurmamitzen du unibertsitateko goi mailako hezkuntzan sartzeko eta ikasten jarraitzeko oinarrizko eskubidea, hori eragozten duten oztopo sozioekonomikoak kenduz, bai prezio publikorik gabeko unibertsitate baten bidez, bai prestakuntzaren ondoriozko kostuei aurre egiteko eta estatu erreferente gisa etorkizunean inbertitzeko aukera ematen duten laguntzen bidez, baina unibertsitateek esleitua duten aurrekontuaren parte bat sakrifikatu beharrik gabe beka eta laguntzen estatu-sistemaren gabeziak estaltzeko. Bestalde, uste dugu autonomia-erkidegoen beken eta laguntzen sistemak Estatuaren beka-sistemaren bidez bete nahi diren helburuez bestelakoak izan behar dituela xede.



Era berean, gure ustez, administrazio publikoek ezarri behar dituzten beka- eta laguntza-sistemek ez dute inolako zama ekonomikorik izan behar, ez ikasleentzat, ez beren familientzat, European Students' Union-ek dioen bezala.

Ikasketetarako beka eta laguntzak irizpide sozioekonomikoen arabera baizik ez dituzte eman behar, lehenengo matrikulan behintzat, eta irizpide akademikoak txikiagotu egin behar dira, ikasleen errealitatera egokitu ahal izateko; izan ere, ikasle horiek, askotan, lan-merkatuan sartu behar izaten dute unibertsitatean egoteak eragindako kostuak ordaintzeko.

Lan-merkatuan sartu direnez, kontuan hartu behar dira matrikula partziala duten ikasleak, matrikulatutako ECTS kopuruari dagokion zenbatekoa eskuratzeko aukera izan behar baitute.

Gaur egun, unibertsitateek ez dituzte beren autonomia-erkidegoko ikasleak bakarrik hartzen, baizik eta beste autonomia-erkidego batzuetako ikasleak ere; beraz, zenbateko aldakorra autonomia-erkidegoaren arabera doitu behar da, horietako bakoitzaren etxebizitzaren, mantenuaren eta garraioaren kostuak kontuan hartuta.

Bekaren ordainketa eraginkorragoa izan behar da, gaur egun ikasturtearen erdialdean egiten baita eta ikasleek finantza-likidezia izan behar baitute eguneroko bizitzari aurre egin ahal izateko.

Egokitzen jotzen dugu, halaber, errenta-atalaseak berrikustea, egungo errealitate sozialera egokitzeke, eta tarteko atalaseak ezartzea, errenta- eta ondare-desberdintasun txikiek ez dezaten baldintzatu zenbateko osoa jasotzea edo ez.

Aldi berean, egungo sistemaren gabeziak direla eta, zenbait kasutan, larrialdietarako beka ezarri dituzte unibertsitateek ezusteko egoerentarako. Bistakoa baita gizarte-arloko unitate teknikoek atzeman behar dituztela egoera horiek, eta gobernua eman behar die erantzuna, kasu horietarako beka-plan bat ezarriz. Ez da bidezkoa ikasleek horrelako karga ekonomikoak beren gain hartzea, ikasten eta prestakuntza jasotzen jarraituko dutela bermatu nahi denean.



Beka-sistemaren beste errealitate bat unibertsitateetako soldata beken da. Ikasleek arduraldi osoan ikastea dute helburu, egonkortasun ekonomikoa izan dezaten.

3. Oztopo akademikoak eta iraupenari buruzkoak

Oztopo akademikoak eta iraupenari buruzkoak ikasleek unibertsitate-sisteman jarraitzea baldintzatzen dutenak dira. Kontuan hartu behar da ikasle bakoitza desberdina dela, eta, beraz, baldintza askok eragiten dutela bere jarduera akademikoan.

Bestalde, ikasle ororen bizitzan gerta daitezke ohiz kanpoko egoerak. Etxeko ekonomiaren erantzule nagusia langabezian gelditzea, senitarteko bat hiltzea edo norbera gaixotzea nekez aurreikus daiteke.

Unibertsitatearen arau-esparruak ez baditu inguruabar horiek kontuan hartzen eta aurrerapenak pertsonen baldintzetara eta sortzen diren egoeretara egokitzeko mekanismoak antolatzen, oztopo akademikoak sortzen dira unibertsitatean sartzeko eta ikasten jarraitzeko.

3.1. Errendimendua eta iraupena

Unibertsitateetan iraupena arautzen duten eta errendimendu-irizpideekin lotzen duten araudi akademikoak nekez egokitzen dira egoera batzuetara.

Iraupena ez da oinarritu behar soil-soilik errendimendu akademikoko irizpideetan, eta errendimendu akademikoa murriztu dezaketen baldintzak aztertu behar dira. Iraupenaren xedeak ikasleek ikaskuntzaldian egindako aurrerapena ebaluatu behar du. Aurrerapenaren azterketak aukera eman behar du ikaskuntza-prozesuan dauden gabeziak identifikatzeko eta ikasle bakoitzaren arazo espezifikoak eta irakasgai bati lotutako arazo orokorrak detektatzeko.



Gure ustez, ebaluazioari, iraupenari eta sarbideari buruzko araudi akademikoak unibertsitateko ikasleen dibertsitatearen berezitasunetara egokitu behar dira, eta egoera horretan dauden ikasleei laguntzeko mekanismoak sortu.

3.2. Bizitza pertsonalaren eta akademikoaren arteko kontziliazioa

Ikasle bakoitzak etxean dituen baldintzek egoera pertsonal bereziak sortzen dituzte, eta horiek kontuan hartu behar dira ordutegiak, presentzialtasuneko baldintzak eta ebaluatzeko mekanismoak ezartzerakoan.

Batzuetan, ikasleek lan egin behar izaten dute ikasketak ordaindu eta familiaren egoera ekonomikoari aurre egiteko. Bestalde, norberaren edo ahaideren baten gaixotasunek baldintzatu egin ditzakete lan akademikoa eta arduraldia.

Ikasleei egoera horretan behar bezala jardutea ez galarazteko, matrikula partzialeko mekanismoak eta presentzialtasunaren salbuespen-sistemak ezarri behar dira. Ikasleek beren lan-egoera frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, edo familian edo norberari gertatutako inguruabarrak egiaztatzen dituztenak.

Bestalde, presentzialtasunaren salbuespena izanez gero, aukera eman behar da ebaluazio-sistema alternatibo bat izateko, lan praktikoak etengabe eman eta ebaluazio presentzialeko hainbat ekintza egin beharrik izan gabe. Sistema hori irakaslea eta eskolak jasotzen dituen ados jarrita egin behar da, batzorde akademiko baten ikuskapenarekin.

3.3. Mugikortsaunean eta jardueren bidez egindako kredituen aitortpena

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu paradigma aldatzea kredituen eta curriculumetik kanpoko jardueren aitortpenari dagokionez, ikasleen mugikortasuna sustatzeko eta bermatzeko lankidetzarako, trukerako eta garapen sozialerako tresna gisa, prestakuntzaren kalitatea murriztu gabe.



Horretarako, orain arte eskaini ez diren aukerako irakasgaiak ezarri behar dira, espektro zabalekoak, mugikortasunean ikasitako beste irakasgai batzuekin erraz baliozkotzeko modukoak. Nolanahi ere, horrek ez du murriztu behar ikasleei etorkizuneko profesional izateko ematen zaien oinarritzko eta funtsezko prestakuntza.

Bestalde, esparru akademikotik kanpoko jarduerak funtsezkoak dira ikasleen garapen sozial, pertsonal eta ez-kognitiborako, eta, beraz, jaso gabeko jarduera mota horiek sustatu behar dira.

Ikasleen curriculumetik kanpoko jarduerari balioa eta aitortpena eman ahal izateko, atal bat gehitu beharko litzateke Tituluaren Europako Gehigarrian, egindako jarduerak jasotzeko, besteak beste lan-arlokoak, elkarteetakoak, kulturalak, boluntariotzakoak edo ordezkariotzakoak.

4. Ondorioak

Dimentsio soziala ezinbesteko osagaia eta baldintza da EUE erakargarria eta lehiakorra izateko. Horrela, berriz azpimarratzen dugu guztiontzako sarbidea eskainiko duen goi mailako irakaskuntzaren kalitatearekin dugun konpromisoa, eta nabarmentzekoa da baldintza egokiak behar direla ikasleek beren ikasketak baldintza sozioekonomikoekin lotutako oztoporik gabe egin ditzaten. Gure ustez, gobernuek neurriak hartu behar dituzte ikasleei finantza- eta ekonomia-arloetan laguntzeko, bereziki gizarte-egoera ahulean dauden taldeei, zerbitzuei buruzko orientazioa eta aholkularitza emanaz, baita sarbidea zabaltzeko aukera ere.

Horregatik, nahiz eta oztopo sozioekonomikoak elementu nagusi izan, ez da kontzeptu osoa finantzaketara mugatu behar, dimentsio soziala ez baita kontzeptu ekonomikoetara mugatzen, alderdi askotara baizik —bai dokumentu honetan jasotakoetara, bai beste batzuetakoetara—, bai kulturalak, bai gizarte-arlokoak.

Ezin da dimentsio soziala Espainiako esparrura mugatu, EUE eraiki zeneko zutabeetako bat baita, Europako herrietarako bizikidetzaren eta gizarte-aurrerapenaren



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas

GOI MAILAKO HEZKUNTZAKO
OZTOPOEI BURUZKO
POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA

konparazio-esparru gisa ulertuta. Hori dela eta, hau ez da Estatuko ikasleen errebindikazio korporatiboa, eta gure herrialdeak adostu zena Europa izeneko proiektu komun horrekiko arduragabekeriatzat hartu behar da.

Estatuak, bere administrazio publikoek, unibertsitateek eta indar politiko eta sozialek dagokien erantzukizuna hartu behar dute beren gain, eta beste aldera begiratzeari utzi behar diote gure herrialdearen gizarte- eta hezkuntza-garapenerako beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak aplikatzeko orduan, eragile guztiak kontuan hartuta horiek garatzeko eta sustatzeko, ikasleak ardatz nagusi dituen elkarrizketa-esparru batean.